DEIALDIA, HAUTAPROBEN BITARTEZ BI IZANGAI-ZERRENDA –BAT PRESTAKUNTZARAKO ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO– OSATZEKOA, GIZA BALIABIDEETAKO ETA ANTOLAMENDUKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUAN ARITZEKO IRUÑEKO UDALEAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

Giza Baliabideetako zuzendariak deialdia onetsi zuen 2026ko urriaren 30an, honako oinarri hauekin bat:

1. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKOA, PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN GIZA BALIABIDEETAKO ETA ANTOLAMENDUKO GOI MAILAKO TEKNIKARI ARITZE ALDERA

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena.- Deialdiaren xedea.

2. Deialdia iragartzen da izangai-zerrenda bat hautaproben bitartez osatzekoa, **GIZA BALIABIDEETAKO ETA ANTOLAMENDUKO GOI MAILAKO TEKNIKARI** lanpostua, A mailakoa, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran betetze aldera, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, deialdiko plazen maila berekoak edo beheragokoak, eta eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia agorturik ez edukitzea.

b) Lanpostuan benetan zerbitzua ematen gutxienez hiru urte eman izana.

c) Ez egotea borondatezko edo nahitaezko eszedentzian.
d) Gradu-titulua, Arkitektura, Ingeniaritza edo horien baliokidea den titulua edukitzea, edo hura erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

2.2. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauen 2.1 apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntza-aldian ere.

Hirugarrena.-Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunetan xedatutakoarekin bat eginen da.

Laugarrena.- Prestakuntzako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta, hala badagokie, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko izendapena honako hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Aipatutako erabakian berariaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela beste zerrenda honen aldean: aldi baterako kontrataziorako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eratutako izangai-zerrenda.

3. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKOA, ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAN GIZA BALIABIDEETAKO ETA ANTOLAMENDUKO GOI MAILAKO TEKNIKARI ARITZE ALDERA

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena. Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da, izangaien zerrenda bat hautaproben bidez osatzekoa, GIZA BALIABIDEETAKO ETA ANTOLAMENDUKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN lanpostuan, A mailakoan, aldi baterako kontratu bidez aritzeko, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa. Halaber, parte hartzen ahalko dute Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu batekoa edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenek –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien bizkar bizi badira.
b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Gradu-titulua, Arkitektura, Ingeniaritza edo horien baliokidea den titulua edukitzea, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
   Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.
d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.
e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ere.
f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

2.2. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

2.3. Kontrataziorako proposatutako izangaiek deialdiaren oinarrietan aurreikusitako epean eta moduan egiaztatu beharko dute aurreko baldintzak betetzen dituztela, salbu eta oinarri honen 2.1 apartatuan eskatutako titulazioarena, titulu hori agiri bidez egiaztatu beharko baita eskabideak aurkezteko unean.

Hirugarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunetan xedatutakoarekin bat eginen da.

Laugarrena.- Aldi baterako kontratazioetarako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo indarreko legeekin bat behar bezala konpultsatutako edo autentifikatutako kopia aurkeztuta.
Halaber, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men eginen zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetan hamar plazatik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beteak izateko, betiere kasuan kasuko hautaprobak gainditu badituzte eta haien egoera frogatzen badute.

BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK

Lehena. Eskabideak:

1.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Bi deialdietan parte hartzeko eskabideak hogei egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdien testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.

1.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: "Izapideak eta lizitazioak'', "Lan-eskaintzak'', "Enplegu publikoa'', "Enplegu publikoko deialdiak'', deialdi honi dagokion aipamenean.

1.3. Tasak.
Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzeagatik ordaindu beharreko tasa 13 eurokoa da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskabidea formalizatzeko unean, ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

1.4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.4.1. Eskabidea online aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Deialdian parte hartzeko baldintza gisa eskatutako titulazioen fotokopia.

Nahi duenak, eskabidea aurkezteko unean, kudeatzaileari baimena ematen ahalko dio titulua Hezkuntza Ministerioaren Datuak Egiaztatzeko Zerbitzuan kontsultatzeko, baina aukera horrek ez du beti bermatzen egiaztatuko denik. Hori gertatzen baldin bada eta izangaiak ez badu titulazioaren kopiarik aurkezten, behin betiko onartuen zerrendatik kanpo geratuko da.

Atzerrian eskuratutako tituluen kasuan, dagokien baliozkotzea edo, bestela, horren homologazio-egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

1.4.2. Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta baliorik gabe gelditukо dira haiek gauzatutako egintza guztiak, deusetan galarazi gabe parte hartzeko eskabidean faltsukeria egiteagatik legokiekeen erantzukizuna.

Aski izanen da agirien kopia soilak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du horrelako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

1.4.3. Desgaitasun aitortua duten izangaiek desgaitasun maila onartzen duen ebazpena –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen dituzten.

1.4.4. Deialdian parte hartu nahi duten eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek baldintza hori egiaztatu beharko dute, genero-indarkeriako delitu batengatik kondena-epaia, babes-agindua edo genero-indarkeriaren biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial aurkeztuz, edo Ministerio Fiskalaren txostena aurkeztuz, non adieraziko baita demandatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela. Halaber, genero-indarkeriazko egoerak egiaztatzen ahalko dira gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimentzako administrazio publiko eskudunaren harrera-zerbitzuen ziurtagiriaren eta txostenaren bidez.

Bigarrena. Izangaiak onestea. Behin-behineko zerrendak eta behin betikoak.

2.1. Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko da.

2.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek hamar egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzean adierazten den izapidearen bidez.

2.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukaturik eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautaproba egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsi eta webgunean argitaratuko da, hautaproba egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

2.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

2.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Hirugarrena. Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

3.1. Hautapen-prozesua 2027ko urtarriletik aurrera hasiko da eta bi proba egin beharko dira (egun bakarrean edo bi egunetan, epaimahaiaren irizpidearen arabera).

3.2. Oposizioko probak oinarri honetan zehaztutakoak izanen dira, eta deialdiaren I. eranskinean zehazten den gaitegiko gaiei buruz eginen dira.

3.2.1. Lehen proba: Izangaiek deialdi honen eranskinean jasotako gaitegiko gaiei buruzko 50 galdera erantzun beharko dituzte idatziz. Galdera bakoitzak erantzun posible batzuk izanen ditu aukeratzeko, baina bat bakarra izanen da baliozkoa. Erantzun zuzen bakoitzak 1 puntu gehituko ditu. Zuzena ez den erantzun bakoitzak 0,25 puntu kenduko ditu. Erantzun gabeko galderek ez dute punturik kenduko.

Proba honetan gehienez ere 50 puntu eskuratzen ahalko dira. Bazterturik gelditukо dira lehen proba honetan gutxienez 20 puntu erdiesten ez dituzten izangaiak.

3.2.2. Bigarren proba: Ariketa teoriko-praktikoa: idatziz edo ordenagailuz ebatzi beharko dira epaimahaiak deialdi honen I. eranskineko gaitegiari buruz proposatutako bi kasu praktiko. Garatzeko galderak izanen dira. Epaimahaiak ariketaren hasieran zehaztuko du izangaiek zenbat denbora izanen duten ariketa egiteko.

Proba honetan gehienez ere 50 puntu eskuratzen ahalko dira. Gutxienez 20 puntu lortzen dituzten pertsonek gaindituko dute proba, eta plika-sistemaren bidez eginen da.

3.3. Hautaprobak egin bitartean, behar diren egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoen aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

3.4. Probak egin ondoren, Udalaren webgunean argitaratuko dira izangai bakoitzak lortutako emaitzak.

Proben emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Laugarrena. Kalifikazio-epaimahaia.

4.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria.
Epaimahaiburu ordezkoa: Arantxa Campo, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko idazkari teknikoa.
1. epaimahaikidea: Paula Unanua Albéniz, Iruñeko Udaleko legelaria.

Ordezkoa: Paloma Sánchez Ruiz, Iruñeko Udaleko legelaria.
2. epaimahaikidea: Julen Ros Indurain, Iruñeko Udaleko legelaria.
Ordezkoa: Ana Jiménez Marco, Iruñeko Udaleko legelaria.
3. epaimahaikidea: Marina Jiménez Díez, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.
Ordezkoa: Koldo Muñoz Cortes, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.
Idazkaria: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.
Idazkari ordezkoa: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

4.2. Hautaprobak egiten hasi aurretik eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoek, kontuan harturik ordezko izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezko gisara izendatutakoak, bigarren ordezpena egitea beharrezkoa izanez gero.

4.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

4.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek laguntza emanen diote epaimahaiari, betiere beraien espezialitate teknikoei bakarrik helduta.

Bosgarrena. Gainditu dutenen zerrenda.

5.1. Behin proben kalifikazioa amaituta, epaimahaiak Udalaren webgunean argitaratuko ditu, bereizirik, honako zerrenda hauek:

- Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

- Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

5.2. Izangaiek guztira erdiesten dituzten puntuetan gertatzen ahal diren berdinketak epaimahai kalifikatzaileak ebatziko ditu irizpide hauekin bat:

a) Prestakuntzarako izangaien deialdia: berdinketak ebazteko zozketa eginen da, Giza Baliabideetako Alorrean.

b) Aldi baterako kontratazio-deialdia: berdinketak ebazteko zozketa eginen da, Giza Baliabideetako Alorrean.

5.3. Izangai-zerrendak izangaiak deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat eginen zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Seigarrena. Izangai-zerrendak eta dei egitea.

6.1. Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaiak deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko dira.

Arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei honako arau hauetan ezarritakoarekin bat dei eginen zaie: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

6.2. Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo indarreko legeekin bat behar bezala konpultsatutako edo autentifikatutako kopia aurkeztuta.

Momentu horretan eskatzen ahalko zaizkie deialdi honetan eskatutako jatorrizko dokumentuak edo indarreko legeekin bat behar bezala konpultsatutako edo autentifikatutako kopiak.

6.3. Halaber, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men eginen zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetan hamar plazatik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beteak izateko, betiere kasuan kasuko hautaprobak gainditu badituzte eta haien egoera frogatzen badute.

Zazpigarrena. Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahal da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtso hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2026ko urriaren 30an. Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.

I. ERANSKINA - GAITEGIA

I. BLOKEA. KONSTITUZIO-, FORU- ETA TOKI-ESPARRUA

Tema 1.- Udal antolaketa eta langileen gaineko eskumenak. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 8. artikulua. Biztanle-kopuru handiko udalerrien antolakuntzako araubidea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean: X. titulua, 121. eta 122. artikuluak; 123.1.c), h) eta n) artikulua, eta 2. eta 3. apartatuak; 124.4.b), i), j) eta k) artikulua, eta 5. apartatua; 125. eta 126. artikuluak; 127.1.g), h) eta i) artikuluak, eta 2. apartatua; eta 130. artikulua.

Tema 2.- Iruñeko Udalaren antolaketa. Osoko Bilkuraren Erregelamendu Organikoa: Osoko Bilkuraren antolaketa eta funtzionamendua. Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamendua: administrazio-egitura, udal-organoak eta eginkizunen banaketa. Aipamen berezia giza baliabideen eta antolaketaren arloko eskumenei.

Tema 3.- Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langileria. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa. VII. titulua. Langile motak eta toki-araubidearen berezitasunak. Plantilla organikoa: edukia, onespena eta aldaketa, batez ere 233. eta 235. artikuluei dagokienez.

II. BLOKEA. ARAUBIDE JURIDIKOA, PROZEDURA ETA AURKARATZEA

Tema 4.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa: atariko titulua, I. kapitulua, xedapen orokorrak; II. kapitulua, 1. atala, Administrazio-organoei buruzkoa; 2. atala, Eskumenei buruzkoa; 3. atala, 1. azpiatala, Kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzkoa; eta 4. atala, Abstentzioa eta errekusatzea.

Tema 5.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Administrazio-egintzak: betekizunak, efikazia, deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Langileen arloko administrazio-prozedura: interesdunen eskubideak eta bermeak, prozeduraren faseak, epe-mugak eta epeak, ebazteko betebeharra, administrazio-isiltasuna eta jakinarazpenak. Ofiziozko berrikuspena eta administrazio-errekurtsoak.

Tema 6.- Nafarroako toki-erakundeen jarduketak aurkaratzea. 6/1990 Foru Lega, uztailaren 2ko: IX. titulua, II. kapitulua, I. eta II. atalak. Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian: izaera, jartzea, izapidetzea, ebaztea eta betearaztea. Administrazioarekiko auzien ordenari eta lan-arloko ordenari esleitutako langileen arloko eztabaidak zehaztea: 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, eta 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa, prozedura judizialen garapena jaso gabe.

III. BLOKEA. ESTATUTU-ARAUBIDEA, LANPOSTUAK HAUTATZEA ETA HORIETARA SARTZEA

Tema 7.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsitakoa. Aplikazio-eremua eta langile motak: I. titulua; III. titulua; IV. titulua, I. eta II. kapituluak. Funtzionarioendako araubidea: II. titulua, I. kapitulua, Hautaketa; III. kapitulua, Mailak eta graduak; IV. kapitulua, Administrazio-karrera; V. kapitulua, Plantilla organikoak, funtzionario-zerrendak eta espediente

pertsonalak; eta VIII. kapitulua, eskubide eta betebeharretara mugatua, ordainsari-araubidea kenduta. Desgaitasuna duten pertsonen sarbidea eta integrazioa: zazpigarren xedapen gehigarria.

Tema 8.- Administrazio-egoerak eta lanpostuak betetzea Nafarroako Langileen Estatutuan. 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa: II. titulua, VI eta VII. kapituluak. Administrazio-egoerak: betekizunak, ondorioak eta zerbitzu aktibora itzultzea. Lanpostu-hornikuntzari buruzko sistemak. Ekainaren 4ko 7/2025 Foru Legearen eragina: aldaketak lekualdatze-lehiaketetan eta 88. artikuluko plaza hutsen iraupen-araubidean; 4. artikuluan aurreikusitako borondatezko eszedentzien aldi baterako araubidea.

Tema 9.- Funtzionarioak Nafarroako administrazio publikoetan sartzea eta mailaz igotzea. 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa: I. titulua, arau orokorrak, lan eskaintza eta igotzeko plazen erreserba; eta II. titulua, I. kapitulutik IV. kapitulura, deialdiak, hautaketa-sistemak, hautaketa-organoak eta hautaketa-prozedura. Sartzeko hautaketa-prozesuak izapidetzeko eta argitaratzeko epeak: Langileen Estatutuaren hogeita zortzigarren xedapen gehigarria, ekainaren 4ko 7/2025 Foru Legearen bidez gehitua.

Tema 10.- Lan-kontratudun finkoen eta aldi baterako langileen hautaketa Nafarroako Administrazio Publikoetan. 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa: III. eta IV. tituluak. Hautaketa-prozedurak eta parte hartzeko baldintzak. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak eraketzea, antolatzea eta erabiltzea, araudi aplikagarriaren eta oinarrietan espresuki aipatzen diren udal arauen arabera.

Tema 11.- Lanpostuak betetzea Nafarroako Administrazio publikoetan. Azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuak onetsitako Erregelamendua. Lanpostuak betetzeko prozedurak, deialdiak eta parte hartzeko baldintzak. Merezimenduen balorazioa, plazak esleitzea eta jabetza hartzea. Zerbitzu aktibora itzultzea lanpostuak betetzearen bidez.

IV. BLOKEA. AURREKONTUA ETA GASTU PUBLIKOA

Tema 12.- Udal-aurrekontua eta langileriako gastuen aurrekontuaren kudeaketa. 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa: aurrekontua egitea, onestea eta exekutatzea. Langileriako kredituak: izatea, nahikotasuna eta aldaketak. Gastuaren exekuzioko eta kontroleko faseak. Iruñeko Udalaren 2026ko ekitaldirako aurrekontua eta exekuzio-oinarriak, batik bat langileria-gastuei dagokienez.

V. BLOKEA. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKETA ETA GARAPENA

Tema 13.- Lanpostuen analisia, deskribapena eta balorazioa. Eginkizunak, erantzukizunak, eskakizunak eta konpetentzia profesionalak. Lanpostuak deskribatzeko fitxak. Balorazio-metodoak eta -faktoreak. Antolaketako egiturarekin, plantilla organikoarekin eta ordainsari-araubidearekin duten lotura.

Tema 14.- Giza baliabideen planifikazioa: langile-beharren aurreikuspena, giza baliabideen eskaintzaren eta eskariaren analisia, eta, plantillak kalkulatzeko eta planifikatzeko teknika nagusiak.

Tema 15.- Langileen gaitasunen araberako hautaketa: kontzeptua, prozesuaren faseak, lanposturako egokitasuna ebaluatzeko metodoak eta tresnak.

Tema 16.- Langileen prestakuntza eta garapen profesionala. Prestakuntza-beharrak hautematea. Prestakuntza-planak prestatu eta gauzatzea. Prestakuntza-ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea. Prestakuntza lanpostuko zereginetara transferitzea.

Tema 17.- Jarduna ebaluatzea. Helburuak, printzipioak eta irizpideak. Helburuen eta gaitasun profesionalen ebaluazioa. Adierazleak eta tresnak. Prozesuaren faseak, ebaluatzeko elkarrizketa, emaitzak jakinaraztea eta hobekuntza-planak.

Tema 18.- Laneko giroa eta barne-komunikazioa erakundeetan: kontzeptua, faktore erabakigarriak, ebaluazio-metodoak, komunikatzeko bideak eta lan-giroa hobetzeko estrategiak.

VI. BLOKEA. DATUEN BABESA

Tema 19.- Datu pertsonalen babesa giza baliabideen kudeaketan. 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra, 2016ko apirilaren 27koa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa. Aplikazio-eremua; tratamenduaren zilegitasunaren printzipioak eta oinarriak. Interesdunen eskubideak. Tratamenduaren arduraduna eta eragilearen betebeharrak. Datuen babesaren ordezkaria. Langileen datuen tratamenduaren berezitasunak eta lan-eremuko eskubide digitalak.

VII. BLOKEA ARRISKUEN PREBENTZIOA, BERDINTASUNA ETA JAZARPENAREN AURKAKO BABESA

Tema 20.- Laneko arriskuen prebentzioa udal-administrazioan. 31/1995 Legea/ azaroaren 8koa: eskubideak eta betebeharrak, arriskuen ebaluazioa, prebentzio-plangintza, osasunaren zaintza, kontsulta eta parte-hartzea. 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa: prebentzioa txertatzea, prebentzio-plana eta prebentzio-antolamenduaren modalitateak. Arrisku psikosozialei buruzko aipamen berezia, araudi tekniko espezializatua kontuan hartu gabe.

Tema 21.- Iruñeko Udalaren prozedurak eta protokoloak laneko jazarpenaren eta indarkeriaren aurrean. Jarduketa-prozedura etsaitasunezko kanpoko jokabideen aurrean. Protokoloa laneko jazarpen moralaren eta etsaitasunezko jokabideen aurka. Prebentzio- eta jarduketa-protokoloa sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurka. Protokoloa, LGTBI+ pertsonen aurkako jazarpenaren eta indarkeriaren aurrean jardutekoa. Oinarrietan berariaz identifikatutako dokumentuen xedea, aplikazio-eremua, bermeak, eta jarduteko faseak.

Tema 22.- Iruñeko Udalaren Barneko Berdintasun Plana: aplikazio-eremua, helburuak, neurriak, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa.

Tema 23.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako: atariko titulua, Legearen xedea eta eremua; I. titulua, berdintasun-printzipioa eta diskriminazioaren kontrako babesa; II. titulua: Berdintasunerako politika publikoen printzipio orokorrak, I. kapitulua; eta V. titulua: Berdintasun-printzipioa enplegu publikoan, I., II. eta III. kapituluak.

VII. BLOKEA ENERGIA TRANTSIZIOA ETA KLIMA ALDAKETA

Tema 24.- Iruñeko Udalaren Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia (ETE-KAE 2030).